



**Mutrikuko Udala**

## **“B” GUTUN-AZALAREN ESKAINTZEI BURUZKO TXOSTENA**

### **BALIO-JUDIZIO BATEN MENDEKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK**

#### **ESPEDIENTEAREN DATUAK**

- Objektua: Mutrikuko herriguneko hondartzako kantinearen eta komunaren ustiapena.
- Epea: 2024 eta 2025 urteetako uda denboraldiak, eta bere kasuan, 2026 eta 2027rako luzapena.
- Eskaintzak aurkezteko epea: maiatzak 16.
- Prozedimendua eta esleipen-modua: irekia eta lehiaketa bidez, urgentziazko modalitatean.

#### **AURKEZTURIKO ESKAINTZAK**

Aurkeztutako eskaintzak edo proposamenak 7 izan dira:

- 1 zenb. ko proposamena. Erregistroko 939 sarrera zenbakia. Leire Sabaris Arruabarrena and.
- 2 zenb. ko proposamena. Erregistroko 948 sarrera zenbakia. Aitana Lizardi Rodriguez and.
- 3 zenb. ko proposamena. Erregistroko 960 sarrera zenbakia. Leire Lete Flores and.
- 4 zenb. ko proposamena. Erregistroko 965 sarrera zenbakia. Aiora Sustaeta Elezgaray and.
- 5 zenb. ko proposamena. Erregistroko 970 sarrera zenbakia. Elena Alberdi Bedialauneta and.
- 6 zenb. ko proposamena. Erregistroko 971 sarrera zenbakia. Laiene Andonegi Zelaia and.
- 7 zenb. ko proposamena. Erregistroko 975 sarrera zenbakia. Alaitz Elesgarai Oliveira and.

Prozedimendu honetan aurkeztu diren zazpi hautagaien gaitasun finantzario-ekonomiko, tekniko eta profesionala eta galdatutako gainerako agiriak aztertuta, guztiak ontzat eman dira.

#### **BALORAKETA IRIZPIDEAK ETA HAUEN HAZTAPENA**

Oinarrietan zehazten diren balio judizio baten menpe dauden irizpideak kontuan izanik txosten honetan kontratazio mahaiaren iritzia ematen da, datu objektiboak kontutan hartuta eman beharreko balorazioaren proposamen bat egiten delarik.

Kontuan hartu diren irizpideak, agiri administratiboen **11. klausularen B** atalean zehaztutakoak izango dira; besteak beste:

**- Proposamenaren balio teknikoa: 15 puntu, gehienez.**

Honako hauek baloratuko dira:

- Instalazioaren **lan-programa eta jarduerak eta kudeaketa orokorreko plana**. Lan-jarduera definitzen duten zerbitzuak deskribatuko dira: pertsona-kopurua, funtzioak, organigrama, etab.

- Erabili beharreko **giza baliabideak**, lanpostu guztiak argi eta garbi adierazita, lanpostu bakoitzak izango duen lanbide-kualifikazioarekin eta funtzioak argi adierazita.

Zerbitzua emateko giza baliabideen zerrenda plangintza- eta jarduera-memoriaren eta lan-programaren arabera izango da. Eskatutako gutxieneko dokumentazioaz gain, **curriculum vitae, langileen prestakuntza eta kualifikazioa** baloratuko dira; zehazki, azken hiru urteetan ostalaritzan arduradun, zerbitzari edo sukaldari gisa izandako esperientzia.

**Hizkuntzak jakitea** ere baloratuko da, bereziki euskara. Horretarako, azken hiru urteetan, gehienez ere, kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzekoa duten egindako zerbitzu nagusien zerrenda aurkeztuko da.

Lizitatuzaileak **ostalaritza-sektorean izan duen esperientzia** sektore pribatuan izan bada, esperientzia hori egiaztatzeko lan-bizitza, autonomoen alta-agiriak eta abar aurkeztu beharko ditu.

Era berean, esleitutako **zerbitzuaren arduradun** eta Mutrikuko Udaleko zuzendaritzarekin harremanetan jarriko den pertsonaren izena adieraziko da.

- **Garbiketa lanen azalpena: 10 puntu, gehienez.**

Honako hauek baloratuko dira:

**Komunen garbiketa lan-programa eta maiztasuna azaltzen duen plana.** Garbiketa lanketak deskribatuko dira eta maiztasuna. (5 puntu, gehienez)

**Terraza eta kantinaren garbiketa lan-programa eta maiztasuna azaltzen duen plana.** Garbiketa lanketak deskribatuko dira eta maiztasuna. (5 puntu, gehienez)

Eskaintzen ezaugarrien objektibotasuna ahal den neurrian bermatzeko, judizio balioespenen menpe gutxien daudenak nabarmendu dira.

## 1. Leire Sabaris Arruabarrena

- **Proposamenaren balio teknikoa:**

Honako ordutegia proposatzen du:

Gosari zerbitzua: 9:00-12:00

Bazkari zerbitzua: 13:00-15:30

Afari Zerbitzua: 20:00-23:00



## **Mutrikuko Udala**

Eskuragarri jarriko dituen zerbitzuak adierazi eta eskainiko dituen produktuak zehatz-mehatz deskribatzen ditu. Aipatu beharra dago, zenbait zerbitzu gehigarri proposatzen dituela. Hauen eraginkortasuna lortzeko asmoarekin hornitzaileen plana eta hainbat ekimen estrategiko azaltzen ditu.

Aurreikusten dituen langile kopurua zehazten du, horietatik 6 espresuki aipatzen dituelarik. Aipamen berezia egiten dio zerbitzua emateko jarduera planari eta honen diseinua zertan oinarrituko den azaltzen du. Era berean, langileek bere gain hartu beharko dituzten ardurak aipatzen ditu, lan kooperatiboaren alde egiten du apustu, eta ondorioz, txandakatze sistema dela medio, langile guztiak rol ugari beteko dituzte. Hauen ordutegia eta jai egunak ere, era argian azaltzen dira. Bera gain hartzen du zerbitzuaren kudeaketa integrala.

Aipatzen dituen 6 langileen CV-a erantsi ditu, bakoitzaren lan-esperientzia eta kualifikazio akademikoa bermatzeko asmoz. Guztiak, esperientzia dute ostalaritzan, eta hauen elikagaien manipulazio egiaztatzea aurkeztu du. Hizkuntzari dagokionez, guztiak menperatzen dute euskara.

### **- Garbiketa lanen azalpena:**

Garbituko dituen guneak azaldu ditu, baita ere, honen maiztasuna, zehazki, egunean bi aldiz egingo da (eguerdian eta amaieran). Garbiketa prozedura zehatzak ezarriko direla aipatzen du, baina ez da prozedura zehatz hori espresuki adierazi, ezta ere, kontrola eramango bermatzeko sistema edo arduraduna.

Terraza eta kantinearen garbiketari dagokionez, garbituko diren eremuak azaldu ditu. Lanaldi amaieran egikaritzea aurreikusten du (egunean behin) eta hilero garbiketa sakona programatzera konprometitu da.

## **2. Aitana Lizardi Rodriguez and.**

### **- Proposamenaren balio teknikoa:**

Eskuragarri jarriko dituen zerbitzuak xehetasunez adierazten ditu, honek bermatzeko 6 langile aurreikusten dituelarik. Produktuak era lausoan aipatzen ditu. Hortaz gain, langile bakoitzak izango dituen funtzioak eta ardurak banatu ditu, esaterako, egunero langile bat sukalde zerbitzura mugatuko da. Sukaldeko, barrako eta terrazako erantzukizunak zeintzuk diren deskribatu ditu. Honako honetan ere, txandakatze sistema ezarriko da. Bere burua deklaratu du erantzule nagusitzat.

Jarduera programa zehatza ere aurkeztu du.

8 orduko lanaldia eta bi opor egun aurreikusi ditu 6 langileentzat. Horietatik hiruren CV-a aurkezteko aukera izan duela adierazi du. Guztiak dute ostalaritzan lan-esperientzia eta euskara maila altua.

### **- Garbiketa lanen azalpena:**

Garbiketa plan zehatza aurkeztu du. Bertan, materialak, prozedurak, segurtasuna eta eremuak zehazki deskribatu ditu. Maiztasuna jasotzen duen hiru taula aurkeztu ditu (sukaldea eta barra, komunak eta terraza), zehazki eremu bakoitza osatzen dituzten elementuak zenbat aldiz garbituko diren adierazi delarik.

### **3. Leire Lete Flores**

#### **- Proposamenaren balio teknikoa:**

Kantina zerbitzuaren ordutegia honela ezarri du:

Gosariak: 9:00-11:00

Bazkariak: 14:00-16:00 (ordutegi zabala aurreikusten da)

Afariak: 20:30-22:30 (ordutegi zabala aurreikusten da)

Itxiera: 00:00

Eskainiko dituen zerbitzuak era lausoan deskribatzen ditu. Eskaintza gastronomikoari dagokionez, jatordu bakoitzean eskainiko duen eskaintza azaltzen du.

Berritzaileak izan daitezkeen hainbat ekintza kultural ezberdinak era orokorrean aipatu ditu.

Hortaz gain, arduradunak zehazten diren organigrama aurkeztu du. Zehazki 3 langileren datuak aurkeztu ditu. Hain zuzen ere; sukalde, barra eta terrazaren arduradun diren pertsonenak. Era berean, hauen CV-ak aurkeztu ditu. Dena den, etorkizunean langile gehiago kontratatzeko aukera aurreikusten du. Aipatu beharra dago, langileek ostalaritzan izandako ibilbide luzea. Gainera, aurrerago irizpide automatikoen bidez aintzat hartuko diren hainbat ezaugarri betetzen dituzte.

Langileen lan-txandak zehatu ditu, lehengo txanda eta bigarren txanda bereizten dituelarik.

#### **- Garbiketa lanen azalpena:**

Komunen garbiketa prozedura era zehatzean azaldu du, eta baita maiztasuna finkatu ere (eguerdian, bazkal ostean eta itxieran). Arduradunak ere ezarri ditu. Terraza eta kantinaren garbiketari dagokionez, prozedura aurreikusi eta arduraduna izendatu du.

### **4. Aiora Sustaeta Elezgaray**

#### **- Proposamenaren balio teknikoa:**

Eskainiko dituen zerbitzuak eta jarduerak deskribatzen ditu, bertan aipamen berezia eginik eskainiko dituen berezitasunei. Eskaintza gastronomikoari dagokionez, gutxiengoko kolektiboek kantina zerbitzua bermatzeko zenbait produktu eskuragarri izango dituela adierazi eta zehazki deskribatu ditu.



## **Mutrikuko Udala**

Hortaz gain, xehetasun osoz deskribatzen ditu kantinan baitan zein kanpo eremuan ezarriko diren material ezberdinak. Barra, sukalde, biltegi eta terraza antolamendua bereizten ditu, bakoitzaren berezitasunak deskribatzen dituelarik.

6 langile aurreikusten ditu, eta baita, hauek bere gain hartu beharreko ardurak ere. Eremu bakoitzean arduradun bat jartzea erabaki du, gainera, honen funtzioak aurreikusten ditu.

Hainbat eskaintza gehigarri proposatzen ditu, esaterako, Mutrikuko hondartzan saskibalo saskia eta volley-ball sarea egoterakoan, palak eta bestelakoak eskuragarri izango dituela adierazten du. Egunero, egunkari eta aldizkariak izango dituela ere aipatu du. Ekintza berriztagarrien artean, bigarren eskuko arropa azoka antolatzeko grina aipatu du.

### **- Garbiketa lanen azalpena:**

Komunak bi aldiz garbituko direla azaldu du ( arratsaldean eta itxieran). Hortaz gain, kontrol instrumentu gisa erabiliko duen eranskin bat atxikitu du.

Terrazen garbiketari dagokionez, hau garbitzeko prozedura aurreikusi du. Era berean, hau osatzen duten elementu bakoitza ze maiztasunez garbituko den adierazi du.

## **5. Elena Alberdi Bedialauneta**

### **- Proposamenaren balio teknikoa:**

Kantina zerbitzuaren ordutegia honela ezarri du:

Gosariak: 9:00-11:30

Bazkariak: 13:00-16:00

Afariak: 20:30-23:00

Aipatu beharra dago, euri egunetan lan jarduerarekin jarraitzea erabaki duela. Egun horiek garbiketa sakona egiteko aprobetxatuko ditu, bereaz, komun zerbitzuaren garrantzia aintzat hartu eta martxan mantentzeko konpromisua adierazi du.

Eskainiko dituen zerbitzu guztiak era argian eta xehetasun osoz deskribatu ditu. Era berean, zerbitzu horiek eraginkortasunez egikaritzeko eta kantinaren funtzionamendu egokia bermatzeko materialak zehatz-mehatz adierazi ditu. Hornidurari dagokionez, kantina martxan-jartzeko eta etorkizunean funtzionamendu egokia eramateko ezinbestekoak diren hornidura zerbitzu ezberdinak aurreikusi ditu.

Doitasun osoz azaldu du eskainiko duen eskaintza gastronomikoa, baita ere, produktu bakoitza lortzeko aurreikusten dituen hornitzaileak. Inklusioa bermatzeko asmoz, eskaintza gehigarriak antolatzeko aukera aurreikusi du.

Kulturaren aldeko hainbat ekimen proposatu ditu, baita ere, horrek exekutatzeko era zehatza.

Zerbitzuen kudeaketa, organigrama argi eta artatsu batean oinarritu du. Ardura zehatzak eta rol ezberdinak zehatz-mehatz definitu ditu; esaterako, zenbait funtzio beteko dituzten arduradunak identifikatu ditu, kantinearen arduradun nagusia edo langilegoaren arduradunak besteak beste.

6 langile aurreikusten ditu, eta horrenbestez, bakoitzaren lan-esperientzia, euskara maila, eta lan-egoera adierazi du. Aipatutako bermatzeko askoz, langileen lan-bizitza atxikitu du. Esan beharra dago, langileen ordutegia aurkeztu duela.

#### **- Garbiketa lanen azalpena:**

Komunen garbiketa prozedura zehaztasun osoz deskribatu du. Hortaz gain, kontrol instrumentu gisa erabiliko den eranskin bat atxikitu du.

Terraza eta kantinak garbi mantentzeko protokolo zehatz bat diseinatu du. Era berean, gunee eta materialak noiz eta zein maiztasunez garbitu behar den azaldu du.

Eguneroko garbiketaz gain, kanpoko enpresa bat kontratatuzeko asmoa adierazi du, honek aurretiazko garbiketa sakon bat egin dezan.

### **6. Laiene Andonegi Zelaia**

Kantina zerbitzuaren ordutegia honela ezarri du:

Gosariak: 9:00-11:30

Bazkariak: 13:00-16:00

Afariak: 20:30-23:00

Aipatu beharra dago, euri egunetan lan jarduerarekin jarraitzea erabaki duela. Egun horiek garbiketa sakona egiteko aprobetxatuko ditu, bereaz, komun zerbitzuaren garrantzia aintzat hartu eta martxan mantentzeko konpromisua adierazi du.

Eskainiko dituen zerbitzu guztiak era argian eta xehetasun osoz deskribatu ditu. Era berean, zerbitzu horiek eraginkortasunez egikaritzeko eta kantinearen funtzionamendu egokia bermatzeko materialak zehatz-mehatz adierazi ditu. Hornidurari dagokionez, kantina martxan-jartzeko eta etorkizunean funtzionamendu egokia eramateko ezinbestekoak diren hornidura zerbitzu ezberdinak aurreikusi ditu.

Doitasun osoz azaldu du eskainiko duen eskaintza gastronomikoa, baita ere, produktu bakoitza lortzeko aurreikusten dituen hornitzaileak. Inklusioa bermatzeko asmoz, eskaintza gehigarriak antolatuzeko aukera aurreikusi du.

Kulturaren aldeko hainbat ekimen proposatu ditu, baita ere, horrek exekutatzeko era zehatza.



## **Mutrikuko Udala**

Zerbitzuen kudeaketa, organigrama argi eta artatsu batean oinarritu du. Ardura zehatzak eta rol ezberdinak zehatz-mehatz definitu ditu; esaterako, zenbait funtzio beteko dituzten arduradunak identifikatu ditu, kantinearen arduradun nagusia edo langilegoaren arduradunak esaterako. Langileen zehaztasuna eta egiaztagiriak: 6 langile aurreikusten ditu, eta horrenbestez, bakoitzaren lan-erperientzia, euskara maila, eta lan-egoera adierazi du. Aipatutako bermatzeko askoz, langileen lan-bizitza atxikitu du. Esan beharra dago, langileen ordutegia aurkeztu duela.

### **- Garbiketa lanen azalpena:**

Komunen garbiketa prozedura zehaztasun osoz deskribatu du. Hortaz gain, kontrol instrumentu gisa erabiliko den eranskin bat aurkeztu du.

Terraza eta kantineak garbi mantentzeko protokolo zehatz bat aurkeztu du. Hortaz gain, gune eta materiala noiz eta zein maiztasunez garbitu behar den azaldu du.

Eguneroko garbiketaz gain, kanpoko enpresa bat kontratatuzeko asmoa adierazi du, honek aurretiazko garbiketa sakon bat egin dezan.

## **7. Alaitz Elesgarai Oliveira**

### **- Proposamenaren balio teknikoa:**

Irekiera 9:00tan izatea proposatzen du. Kantina egunero irekitzeko konpromisua hartzen du, eta aipamen berezia egiten die komunei.

Eskainiko diren zerbitzuak zehaztasun osoz azaltzen ditu, baita zerbitzu horiek eraginkortasunez egikaritzeko beharrezkoak diren materialak.

Eskaintza gastronomikoari dagokionez, aurreikuspen global bat egin du. Aurretiaz eskaintakoa areagotzeko hainbat proposamen aurkeztu ditu, eta hauen praktikotasuna adierazteko asmoz eskuragarri izango dituen eskaintzen karta atxikitu du. Aurrerago azalduko dituen prezioen justifikazio taula bat diseinatu du.

Oinarrizko eskaintzaz gain, Mutrikuko beste eragile eta elkarte batzuekin elkarlanean aritzea aurreikusten du. Ondorioz, hainbat jardura gehigarri proposatzen ditu. Aktibazio kulturalako hainbat ekintza azaltzen ditu, eta ekitaldi hauen oinarrian aurkitzen diren printzipioak adierazten ditu.

Xehetasun osoz garatutako organigrama aurkeztu du. 10 langile aurreikusten ditu, eta lanpostu bakoitzari dagozkion obligazio eta erantzukizunak doitasun osoz azaldu du taula ezberdinetan. Horrela egiterakoan, argi azaldu du zein izango den zerbitzu bakoitzaren arduraduna, baita honek egikaritzeko duen kontrola ere. Era berean, langileen ordutegiak, jai-egunak eta erregistro fitxa bat helarazi du. Langileek bete beharreko ezaugarriak ere zehatzean azaldu ditu, eta betetzen dituztela egiaztatuzeko, bakoitzaren CV-a eta egiaztagiriak igorri ditu.

**- Garbiketa lanen azalpena:**

Garbiketaren gidalerro izango den araudi bat diseinatu du, ondoren eremu bakoitzaren protokolo zehatz bat aurreikusi duelarik. Komunak egunean 4 aldiz garbituko dira, eta, horrela izan dadin kontrol instrumentu bazela erabiliko duen fitxa atxikitu du. Txiringito eta terrazari dagokionez, funtzionamendu berdina jarraitu du, hau osatzen duten elementuak noiz garbituko diren adierazi duelarik.

Hortaz gain, hainbat eranskin atxikitu ditu. Horietako askok egindako proposamenaren praktikotasuna bermatu dute.

**ONDORIOA ETA PROPOSAMENA**

Kontuan harturik baloraketa osotariko emaitza ondoko taulan jasotzen da:

| ESKAINTZAGILEAK                 | Proposamenaren balio teknikoa: (15 puntu) | Garbiketa Plana (10 puntu) | GUZTIRA (25 puntu) |
|---------------------------------|---|----------------------------|--------------------|
| Leire Sabaris Arruabarrena and. | 11,3                                      | 6                          | 17,3               |
| Aitana Lizardi Rodriguez and.   | 9   | 9                          | 18                 |
| Leire Lete Flores and.          | 8,5                                       | 6,5                        | 15                 |
| Aiora Sustaeta Elezgaray and.   | 10,3                                      | 8                          | 18,3               |
| Elena Alberdi Bedialauneta and. | 11,9                                      | 8,6                        | 20,5               |
| Laiene Andonegi Zelaia and.     | 11,9                                      | 8,6                        | 20,5               |
| Alaitz Elesgarai Oliveira and.  | 11,5                                      | 10                         | 21,5               |

Ondorioz, "C" gutun-azala, hau da, Proposamen Ekonomikoa eta balorazio automatikorako irizpideak" maiatzaren 28an irekiko da, **goizeko 12:00tan**, Mutrikuko Udaletxeko batzar aretoan, **ekitaldi publikoan**.

Mutrikun, 2024eko maiatzaren 24an

**KONTRATAZIO MAHAIKO IDAZKARIA**

Ane Arreitunandia Elordi